

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2019ko urtarrilaren 29ko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena

– **Foru Dekretua:**

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 4/2019 Foru Dekretua, urtarrilaren 29koa. Onestea pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergan eta sozietateen gaineko zergan aplikatu beharreko eguneratze koefizienteak.

– **Erabakiak:**

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 33/2019 Erabakia, urtarrilaren 29koa. Onestea Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsean toki erakundeak izango duten hasierako behin-behineko partaidetzen banaketa.

Foru Gobernu Kontseiluaren 34/2019 Erabakia, urtarrilaren 29koa. Onestea aurreikusitako ezin diren egoeretan Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeak finantzatzeko gai ez diren ezusteko eta larrialdiko obrei aurre egiteko diru laguntzen bigarren esleipena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 35/2019 Erabakia, urtarrilaren 29koa. Onestea 2018ko ekitaldian onetsi ziren Arabako ikasle gazteen garraiorako laguntza deialdiari eta Arabako Lurralde Historikoko udalerririk despopulatzeko eragozteko 1 eta 2 laguntza lerroei dagokien 2019rako esleipena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 36/2019 Erabakia, urtarrilaren 29koa. Onestea herrigune txikietan beste eraikuntza mota batzuk sustatzeko diru laguntzen deialdiaren ebazpena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 37/2019 Erabakia, urtarrilaren 29koa. Onestea Navaridaseko Udalak udal bandera ofiziala legezatzeko abiarazitako espedientearen aldeko irizpena ematea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 38/2019 Erabakia, urtarrilaren 29koa. Onestea Inicpresa SAUri esleitzea altuera erreskateak egiteko ibilgailuaren erosketa, 626.175 euroan, BEZa barne.

Foru Gobernu Kontseiluaren 39/2019 Erabakia, urtarrilaren 29koa. Onestea ematea uztailaren 17ko 381/2018 Erabakiak, Araba Berritzailea 2018 laguntza lerroaren ebazpenari buruzkoak, xedatutakoaren kontra aurkeztutako berraztertze errekurtsoaren ezespenerari.

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 40/2019 Erabakia, urtarrilaren 29koa. Onestea International Business Machines SAren aldeko 3.892.166,68 euroko kreditu esleipena, aldundi honen Mainframe teknologia plataformaren hornikuntza alokairuaren bidez finantzatzeko 2019 ekitaldian.

Foru Gobernu Kontseiluaren 41/2019 Erabakia, urtarrilaren 29koa. Onestea Iberdrola Clientes SAUren aldeko kreditu esleipena, 1.069.000 eurokoa, 2019 ekitaldian energia elektriko hornitzea finantzatzeko, eta kontratuaren aldaketa, Arabako Artxibo Historiko Probintzialeko hornikuntza sartzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 42/2019 Erabakia, urtarrilaren 29koa. Onestea Repsol Comercial de Productos Petrolíferos SAREN aldeko kreditu esleipena, 390.000 eurokoa, 2019 ekitaldian A gasolioz hornitzea finantzatzeko.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 43/2019 Erabakia, urtarrilaren 29koa. Onestea 2019 ekitaldiko konpromiso ekonomikoak, Arabako Foru Aldundiak bere gain hartutako zorpetzearen ondorioz sortuak.

Foru Gobernu Kontseiluaren 44/2019 Erabakia, urtarrilaren 29koa. Onestea, Nekazaritza Sailak eskatuta, 4/2019 kreditu transferentziaren espedientea (8.215,90 euro), "Informatika Programa Integratuak EAE" partida funtsez hornitzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 45/2019 Erabakia, urtarrilaren 29koa. Onestea gastuen zuzenketa teknikoaren 1/2019 espedientea (9.426.993,19 euro), 33-Arkitectura programaren partidak 32-Zerbitzu Orokorrak programan sartzeko eta 3214-Arkitectura azpiprograma sortzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 46/2019 Erabakia, urtarrilaren 29koa. Onestea foru aldundi honek hitzartutako ondasun higiezinaren alokairuen zenbatekoak esleitzea, 2019an ordaintzeko.

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 47/2019 Erabakia, urtarrilaren 29koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiaren Landa Bideen Erregistroan dauden landa bideen mantentze lanetarako zerbitzuaren kontratuaren amaierako likidazioari eta fidantzak itzultzeari.

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 48/2019 Erabakia, urtarrilaren 29koa. Onestea 2019ko lehenengo sei hilekoko Eskola Kirola kudeatzeko Arabako kirol federazioekin izenpetutako hainbat elkarlan hitzarmenen gastua baimentzea eta xedatzea.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 49/2019 Erabakia, urtarrilaren 29koa. Onestea Arabako Ur Partzuergoaren (lehen Troperagaingo Urkidetza) behin betiko estatutuen berrespena, zeinak 2018ko abenduaren 26ko aparteko batzar orokorrean onetsi baitziren.